

ANTXIÑAKO  FOTOGRAFIXIA

## Torreazoko Sanpedrotan

**S**anpedruak Zubillagan eta Torreazon ospaketan dira. Sasue batian **Torreazoko** [To] jaixak jente asko karriaiten euen. Bertan baserri eta bestelako etxe gutxitxo egon arren, inguruko auzuetatik etorten ziran urtero Sanpedruetan parte zuzena hartzera, **Txantxilipeztegi** (Madalena) [Tx], **Garibai** [Ga] edota **Goribarreko** [Go] auzotar batzuk batez be; **Zaiñartukuak** [Za] ez hainbeste. Gero, eromerixara-eta, kaletar asko inguraketan zan San Pedroko zelaira. **Aurten**, beste leku gehixenetan letxe, **eztala ospakizun haundirik izango irizten xaku**. Baiña, besterik ezian, 60 urte pasatxo eukiko dauen fotografixa honekin, garai bateko fiesta-girua gogoratu gura izan dotsuegu.

Argazkixa Torreko zubixaren onduan atarata dago, San Pedroko kalejarako sarreran. Konturatuko zarai **ixa protagonista danak gizakumiak dirala**, edade desbardiñetakuak. Baiña **lau emakume be agiri dira**. Zergatik ete? Ba, urte hareittan San Pedroko Torrian, handik oso hurrian, baserrixaren kontran eta erreka ertzian, auzoko tabernia egon zan, oso ezaguna Oñati aldian. Taberna haretan jardun euen lanian Guridi-Egaña familixako emakumiok luzaruan. Horregatik-edo agertuko dira hemen gizon pilliaz inguratuta. Zorionez, ohitturak aldatauz fan dira. Fotografixako beste **personaje garrantzitsu bat soiñujolia** da: **Felix Aranzabal**, Angiozarreko itsu famaua, hamarkada askotan San Pedruetako eromerixak eta beste musikaldi batzuk animaittera etorten zana. Honek be auzuarekin lotura estua eukan, Azkonitza baserriko **Anjeles Ugarterekin** ezkondata eguen-eta. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dira ezagutu dittugunok.

Goixeneko illaran: **Telesforo Urzelai**, Anduagakua [Tx]; **Luis Márquez**, Azkonitzako morroia [To]; **Paulo Garai**, Santuekua [Tx]; **Bittoriano Etxezarreta**, Etxeandikua [To]; **Jexus Urzelai**, Anduagakua [Tx]; **Zelestino Agirrebengoa**, Maala-etxebarrikua [Tx]; **Juanito Olazarán**, Unaingua [Ga]; **X. X.**; **Enrike Guridi**, Torrekoa [To]; **Alberto Barrena** [?], Munazategikua [To]; **Iñaxio Barrena**, Munazategikua [To]; **Manolo Etzaniz**, Zubillagakua; **Felix Aranzabal** soiñujolia, **Angiozarreko itsua**; **Bixente Etxezarreta**, Etxeandikua [To]; **Joxe Mari Egaña**, Errotabarrikua [Go].

Hirugarren illaran: **Felix Anduaga**, Etxatxokua [Tx]; **Benigno Madina**, Juliangua [Ga]; **Joxe Ugarte**, Azkonitzakua [To]; **Ixaak Etxezarreta**, Etxeandikua [To]; **Antonio Olazarán**, Unaingua [Ga]; **Baxilio Egaña**, Dolaetxekua [Ga]; **Migel Etxezarreta**, Etxeandikua [To]; **Pedro Urzelai**, Anduagakua [Tx]; **Modesto Zilaurren**, Elazarrako morroia [To]; **Joxe Barrena**, Munazategikua [To]; **X. X.**; 27.- **Juanito Urzelai**, Anduagakua [To]; **Bixente Zabarte**; eta **X. X.**

Bigarren illaran, nahasi samar: petrillian jarritta, **Tomas Txintxurreta**, Berotegira ezkondua [Go]; **Gabino Beitia**, Kastillokua [Ga]; **Euxebi Aldanondo**, Torreko Pedoren andria [To]; **Martiña Egaña**, Torreko ama [To]; **Malen Egaña**, Martiñaren ahizpia; **Maritxu Guridi**, Torrekoa [To]; **Felix Barrena**, Munazategikua [To]; **Xalbador Abaunz**, San Pedroko kalejakua [To]; eta **Esteban Guridi**, Argiñena [Ga].

Lehenengo illaran jarritta: **Jexus Guridi**, Argiñena [Ga]; **Joakin Aldasoro**, Dolaetxeko morroia [Ga]; **Felix Bolinaga**, Maala-etxebarrikua [Tx]; **Luis Abaunz**, San Pedroko kalejakua [To]; **Pedro Guridi**, Torrekoa [To]; **Joxe Guridi**, Torrekoa [To]; eta **Plaxido Guridi**, aurreko bixen osaba, Torrekoa [To].

Makurtuta: **Juane Anduaga**, Etxatxokua (?) [Tx]; **Julian Anduaga**, Etxatxokua [Tx]; eta **Deogracias Guridi**, Plaxidoren anaia, [To].

**Fotografixa Manolo Etzanizen argazki-fondokua da eta bere alaba Maiteren bittartez aillegau xaku. Argibidiak Manolo Egaña, Luis Urzelai, Miren Isasmendi, Maria Jesus Guridi, Beatriz Irizar eta Sorkunde Ugartek samurtu doskue. Milla esker danoiri!**